

## **DEFINIZIOAK**

# **TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINEN AITORPENAREN ESTADISTIKA (090223)**

Hemen agertzen diren definizioak honako arau hauetatik ondorioztatzen dira:

- [Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legea.](#)
- [Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua.](#)

### **Tresna elektriko eta elektronikoak edo tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak**

Funtzionatu ahal izateko korrante elektrikoak edo eremu elektromagnetikoak behar dituzten tresnak nahiz korriente eta eremu horiek sortu, transmititu eta neurtzeko behar diren tresna oro. Horiek tentsio nominalaren 1.000 volt-tik gorakoa ez den korrante alternoarekin eta 1.500 volt-tik gorakoa ez den korrante zuzenarekin erabiltzeko dira.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak edo TEEH**

Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3.a) artikuluan jasotzen den definizioarekin bat egiten duten eta hondakin bihurtzen diren tresna elektriko eta elektroniko guztiak. Definizio horrek bere gain hartzen ditu baztertzen den unean produktua osatzen duten osagai, submultzo eta kontsumigarri guztiak.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren merkaturatzea**

Merkataritza-jarduera batean doan edo ordainduta Espainiako merkaturan hornitzeko, banatzeko, kontsumitzeko edo erabiltzeko den tresna elektriko eta elektronikoaren produktu bat.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen tratamendua**

Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak balorizatu edo ezabatzeko operazioa (balorizatu edo ezabatu aurreko prestaketa barne). Horiek berrerabiltzeko prestaketa edo “tresna elektriko eta elektronikoaren berariazko tratamendua” izeneko operazioak barne hartzen dituzte. Horiek berrerabiltzeko prestaketaren ondoren egiten diren tratamenduak dira eta 22/2011 Legearen 31.2 artikulua bigarren paragrafoan eta XIII. eranskinean daude jasota.

### **Berrerabilitzea**

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak edo horien osagaietako batzuk sortu ziren erabilera berberara zuzentzea ahalbidetzen duen operazio oro. Termino honek tresna edo haren osagai batzuk jarraian erabiltzea jasotzen du, biltzeko guneari edo banatzaileei, birziklatzeko enpresei edo ekoizleei itzulita.

### **Berrerabilitzea**

Hondakinak ez diren produktuak edo produktuen osagaiak sortu ziren helburu bererako berriro erabiltzeko edozein eragiketa (22/2011 Legearen 3. artikulua, p letra).

### **Birziklatzea**

Hondakinen materialak berriro produktu, material edo substantzia bihurtzeko erabiltzen den balorizazio-eragiketa oro, bai jatorrizko helbururako, bai beste edozein helburutarako. Material organikoaren eraldaketa barne hartzen du, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren material bihurtzea ere (22/2011 Legearen 3. artikulua, t letra).

### **Balorizazioa**

Edozein eragiketa, baldin eta haren emaitza nagusia hondakina helburu erabilgarri baterako erabiltzea bada, beste material batzuk ordeztuz (horiek, bestela, funtzio partikular bat betetzeko erabiliko lirake), edo hondakina instalazioan edo ekonomian, oro har, funtzio hori betetzeko prestatua izatea (22/2011 Legearen 3. artikulua, r letra). 22/2011 Legearen II. eranskinean balorizazio-eragiketen zerrenda ez-zehatza jasotzen da.

### **Ezabatzea**

Balorizazioa ez den beste edozein eragiketa, baita eragiketaren bigarren ondorioa substantziak edo energia aprobeztatzea izanda ere. Legearen I. eranskinean ezabatze-eragiketen zerrenda ez-zehatza jasotzen da (22/2011 Legearen 3. artikulua, v letra).

### **Etxeko edo etxe partikularretatik datozen tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak**

Etxe partikularretatik edo duten izaera edo kopuruarengatik etxe partikularretako hondakinen antzekoak diren merkatarizatik, industrietatik, erakundeetatik edo beste iturri mota batetik datozen tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak.

Etxe partikularretan zein etxe partikularrak ez diren bestelako erabiltzaileek erabili ahal dituzten tresna elektriko eta elektronikoen hondakin bihurtzen direnean, etxeko tresna elektriko eta elektronikoen hondakintzat joko dira.

### **Balorizazioaren gutxieneko helburuak**

Kategoriaren araberako balorizazioko gutxieneko helburuak kalkulatzeko, balorizatzen edo birziklatzen bideratutako TEEHen materialen pisua edo berrerabiltzeko prestatzen bideratutako TEEH osoen pisua kategoria bakoitzerako instalazioetan sartzen diren TEEH guztien pisuarekin zatitzen da, ehunekoetan adierazita.

### **Berrerabiltzeko prestatze-lanen gutxieneko helburuak.**

Aparatu osoen hondakinak berrerabiltzeko prestatze-lanen gutxieneko helburua, frakzio horretatik bildutako TEEHen aldean.

### **Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinaren balorazio-tasa**

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinaren portzentajea, kudeatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien aldean.

### **Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berrerabiltzeko edo birziklatzeko tasa**

Berrerabiltzeko edo birziklatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien portzentajea, kudeatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien aldean.